

## BESTELAKO XEDAPENAK

### GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

## 4418

*AGINDUA, 2022ko irailaren 27koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita Fundación Colegio Oficial de Médicos de Gipuzkoa-Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialeko Fundazioa izeneko fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitzeko.*

2022ko apirilaren 27an, eskabide bat sartu zen Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean, Fundación Colegio Oficial de Médicos de Gipuzkoa-Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialeko Fundazioa izeneko fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko. Aldaketa hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitzeko adostu zuen patronatuak 2018ko abenduaren 12an. Eskabide-idazkiari espedienteko dokumentazioa erantsi zitzaion.

Fundazioen Erregistroak, errekerimendu bidez, fundazioari eskatu zion zuzendu zitzala atzemandako akatsak. Hala, 2022ko ekainaren 28an sartu zen Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean 2022ko ekainaren 22an, Donostian, Francisco Javier Oñate Cuadros notario jaunaren aurrean (protokolo-zenbakia: 1.645) egiletsitako eskritura publikoa. Eskritura horren bidez, publiko egin zen patronatuak 2018ko abenduaren 12an hartutako estatutuak aldatzeko erabakia, zeina geroago berretsi baitzen 2022ko ekainaren 8an.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari dagokio estatutuak aldatzeko espediente hau Agindu bidez ebaztea, hauekin bat etorriz: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien eginkizunak eta jardun-arloak zehazten dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Espedienteari funtsezko iritzitako datu eta dokumentu guztiak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 37. eta 51.2 artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 42. artikuluan aurreikusitako baldintzak. Horrenbestez, estatutuen aldaketa bat dator aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin.

Hori guztia kontuan hartuta, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Fundación Colegio Oficial de Médicos de Gipuzkoa-Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialeko Fundazioa izeneko fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitzeko, Agindu honen datarekin, 2022ko ekainaren 22an, Donostian, Francisco Javier Oñate Cuadros notario jaunaren aurrean egiletsitako eskritura publikoan (protokolo-zenbakia: 1.645) aurreikusitako baldintzetan.

## XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

## AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, ondorioz, honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburu honen aurrean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean; bestela, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 27a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,  
OLATZ GARAMENDI LANDA.